




ILEROKO ALDIZKARI EDERGAĪDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

:—: || VIII Urtea || 1926'ko Urĭla || 94 Zenbakia || :—:

Prantzisko Santuaren eun-urtebetetzea

Aita Santuaren Eskutitza



SKUTITZ luze bat, ta edeġa baġo edeġagoa, mami-
tsua baġo mamitsuagoo argitaratu du gure Aita
Santu aguġafi, amaikagafen Pio'k, Asistar Prant-
zisko Santua il zalarik zazpireungafen urtea dala-
ta. Egia esateko, Aita Santuaren eskutitz gartsua
itzez-itiz itzulia eman nai genieke gure irakurleai.
Baġa eskutitza eder, mamitsu bada ere, luze ere ba-
da, ta aldizkingi (efebista) onetan eztago dana ba-
futzeko lekuriġ. Naiko izan bearko du beraz, esku-
titzaren gogoeta nabarmenenak ta nabariġnak azal-
tzea.

Aita Santuaren ustea

Urte Santuari, Elizarentzat ain onuratsu (protxu-
gafi) izan dan Urte Santuari Prantziskar Urtea da-
faikio, Asis'tar Prantzisko Santuari eskeġitako
Urtea. Eta Elizarentzat ain onuratsua (protxugafia)
izan dan bezela Urte Santua, gogo (arima) asko
adoretu direlako Jauna'ren legea zeatzago bete ta

bizitza garbiago, zintzoagoo egitera ta bazter guzietan asko piztu dalako Jauna-
ganako sinisġnena ta maitasuna, ofela Prantziskar Urte onetan ere on aundiak
etofiko zaizġio Elizari, Asis'ko Santuaren omenaz egingo diran jaiġen bitartez,
jai oiek dirala elizazkoak dirala luġezkoak. Urte Santua ta Prantziskar Urtea bata
bestearġn laguntzaġe izango dira. Urte Santuan sortu ta asi ziran zituak (frutu-
ak), orain Prantziskar Urte onetan osoro osoro ondu ta elduko dira. Ofegatiġ Eli-

zako kristauen artzai guziei esaten die Prantzisko Santuaren semeekin baturik, kristauen gogora ekartzeko Santu aundi ofen bizitza, onoiemenak (birtuteak) ta goragafiak, ofela biztu ditezen beren gogoetan (arimetan) ta gorputzetan Asis'-ko Santuaren irudia ta antza agertzera.

Aita Santuak elkañen leian

Bere aufeko Aita Santuak, dio eskutitzean amaikagafen Pio'k, elkañen leian ibili izan dira Asisko Santua goratu naiez. Oso ederki oroitzen da, dirala befogei ta lau urte, orainik bera gazte zala, nola amairugafen Leon Aita Santuak mugitu zituan bazter guztietako efiak Prantzisko Santuagana, onen jaiotzaren zazpireungafen urtea zala-ta. Orduan piztu zan Asis'iar Santuaganako suak ta maitasunak mota guztietako zitu (frutu) onak, ondoren edefak, egite jainkotiafak ekafi zituan. Ofela betetzen dira Dante Alighieri'ren itz gozo aiek: «Eguzki baten antzera argi egiteko eta efiak argitzeko» ekafi zuan Jaungoikoak Prantzisko lufera. (1) Edo Tomas Zelano'renak: «Gau ilunean disdis egin zuan (Prantziskok) izar distiratsuren antzera eta ilunpe artetik geroz ta argitzenago dijoan egun-sentiak bezela.» (2)

Prantzisko'ren deia

Prantzisko gazte xaloa, bikaña ta argia zan, bere maitagafitasunaz lagunene biotz guziak bereganatzen bazekiena; ta txit eder zitzaion jaiez-jai, pozaldiz-pozaldi ibiltzea bere lagunekin. Baña etzan geiegi, neufiaren gañetik atsegiñetara, ezta pozaldietara, ezta aberastasunetara eman. Bere gogoa (arima) lufeko afiskuen artean beti garbi gorde zuan, munduko gaiztakeriaz loitu gaberik.

Egun batez biotz bafenean Jaunaren deia somatu zuan eta gogoratu zitzaion Jaungoikoaren naia osotan betetzeko «ebanjelioak erakusten duan erara» bizi bear zuala. Orduzkeroztik egifialetan eman zan guzia Jesus'en antzeko alik berdiñena egitera.

Prantzisko'ren txirotasuna

Gazte-gaztetan, berez bezela sortu zitzaion Prantziskori ezeukienganako ta beartsuenganako maitasun samur-samufa. Buenabentura Deunak dionez, ebanjelioaren esan-onak bete naiaz «erabakia artu zuan eskekoen bat bere etxera etortzean, bein ere ez uztea zerbait luzatu gabe, batez ere Jaungoikoaren maitasunaz eskatzen bazion.» (3).

Bein batez etxe aufean eskeko bat agertu zitzaion. Ezer eman gabe utzi zuan ta eskekoa joan zan. Berealagure Santuari damutasuna sortu zitzaion, eskekoaren bila joan ta ugari eman zion nai zuan guztia. Beste batez bere lagunekin bazkari eder bat egin ondorean, uriko kafika bafena kantuz ta oiuz, pozez beterik zi-joaztela, bet-betan, kafika erdian gelditu zan gure Santua geldi-geldi, kordea galdu-ta bezela. Lagunak ifiz galdetu zioten: «Zer? ezkongean gogoratzen al ago?» Prantziskok befiz erantzun zien gozo ta gartsu: «Ah! bai; ezkontzeko asmoak ditut ta ezkondu bear det emaztegai aundiki, aberats, eder, berdingabeko batekin.» Txirotasunari (pobrezari) buruz esaten zituan Prantzisko gazteak itz eder ta gozo oiek. Jesukristo'gandik ikasi zuan Prantzisko'k txirotasuna (pobreza) ain biotzaren erdi-erditik maitatzen, txirotasunaz ain liluraturik ta zoratutik bizitzen, *bere andrea, ama, emaztea* deitzeraño.

Apaltasuna

Txirotasunarekin batez ta neufi berean maite zuan ere apaltasuna. *Agur nere andre txirotasuna, zure aizpa apaltasunarekin batez*, esan oi zuen. Eta

(1) Par. X.

(2) Leg. I n. 37.

(3) Leg. mai. c. I. n. I.

jañaitzen zuan: *Txirotasun onoiemenak (birtuteak) kentzen du luñeko ondasunen zalekeria, guraria ta zikoizkeria. Apaltasun onoiemenak beriz ezereztutzen du luñeko añokeria, aundikeri-naia eta luñean diran gauza guztiak.* (1)



Prantzisko Santua Albernian

Onegatik *Kristoren Antz-bidea* deitzen dan ufezko liburuaren egileak, Asis'ko Santuaz itz-egitean, Prantzisko «apala» deitzen dio. Apaltasunak eraman zuan berak irasi (fundatu) zuan Ordenaren nagusigoa uztera, bere menpekoak otoi-

(1) Opusc. *Salutatio virtutum* (Ed. 1904) p. 20 ssq.

tzez, ta afen da afen eskatzen bazioten ere nagusigo ori ez uzteko ta ez uzteko. ¿Ta zertarako utzi nai zuan ba? «Apaltasuna gordetzeko, auferontzean besteen menpskoa izateko il arteraño, beste edozein baño apalago bizi izanaz.» (1)

Elizaganako maitasuna

Asis tar Prantzisko'k begiramentu aundia zion Aita Santuari ta bere itzal-dietan beti ekin ta ekin ibiltzen zan esanaz: «Elizaganako zintzotasuna beti ondo gordetzeko, eta apaiz jaunai ere itzal aundia izateko, beren bitartez Jauna ematen zaigulako.» (2)

Jaungoikoaren ta lagun-urkoaganako maitasuna

¿Nondik etortzen zitzaizkion Prantzisko'ri onoiemen (birtute) ain edefak ta distiratsuak? Jaunaren maitasunagandik. Tomas Zelano'k dionez «Prantzisko'k, jainkozko maitasunaren suan efelzen zegoala, joran-joranez nai zituan gauza aundiak egin eta, Jaunaren aginduen bideetatik ibiliz, leiaz nai zuan osotasun ta santutasun mendiraño igo.» (3) Eta jakiña, ibai auditua gañezka ateratzen dan bezela, Jainkoaganako maitasuna ere biotzetik kanpora ateratzen zitzaion. ¿Nora joateko? Lagun-urkoak maitatzera joateko, eskekoak eta gaztaroan ain nazkagafi zitzaizkion legenardunak samurtasun gozoz besarkatzeko.

Gizartea aldatzeko aukeratua

Bein Aita Prantzisko Damian Santuaren elizatzhoan otoitzez ta negafez zegoela, iru aldiz entzun zuan zerutik zetorkion ots gozo au: «Prantzisko, zoaz ta eutsi nere etxeari, erortzera bai-dijoa.» (4) Prantzisko'k ordea etzuan asmatzen zer adierazi nai zion zeruko dei onek. Irugafen Inozenzio Aita Santuari azaldu zion egoki baño egokiago. ¿Nola? Ara. Aita Santu onek lo zegoela, amets bat izan zuan eta agertu zitzaion Letran'go eliza-nagusia erortzera zijoala. Erori baño len ordea, Prantzisko'k bere bizkafa ta gorputzaz eliza irozoten zuela. Amets argi ofen bidez ezagutu zuan Aita Santuak Prantzisko aukeratu zuala jaunak Elizako oiturak aldatzeko ta ondutzeko.

Sinismengabeen artean

Baña etzuan lan egiten Prantzisko'k kristauen artean bakafik. Bere semeai beti gogoratzen zien, aspertu gaberik, sinismengabeen alde lan egin bear zala gogotik, aiek ere ekafi bear zirala egiazko erlijiora, aien gogoak (arimak) ere zerura bear zirala.

Azkena

Eskutitzaren azken aldean, dio Aita Santuak, gazte-gaztedanik dala Asis'ko Prantzisko Santuaren maitale sutsua ta samufa; ta aspaldidanik jantzirik daukala Irugafen Ordenako jantzia ta lokafia. Ofela Asis'ko Santuaren semeen artean izendatzen dala ta poz-pozik gero.

Eta guk izan degu ausardia eskutitz ofen laburki bat gure irakurleai emateko. Egia, astiro-astiro irakufi degu, gauza asko biotz-biotzeraño eldu zaizkigu, atsegin gozoa artu degu lefoz-lefo gauza ain sakonak, ain mamitsuak, ain afa-zoi andidunak irakurtzean. Baña bildur gera, gaizki azaldu degula gure Aita Santu agurgafi, Pio amaikagafenaren gogo. Barkatuko al digute gure ausardia irakurle guziak.



Yüre'tar Julian A. O. M. Cap.

(1) Tom. Zel., Leg. II, n. 143.

(2) Julian de Spira. *Vit. S. Fr.* n. 28.

(3) Leg. I, n. 55.

(4) S. Bon. *Leg. mai.* c. 2.



URBARAN, Dolci, Etxenagusia (1) eta beste ertilari (*artista*) askok, buru-ezufa, neke-tresnak, eta bere aurfear edo dituelarik, antzestu digute Asistar Prantzisko Deuna. Baño lauki ta giza-irudi oiek ez dira Deun ofi osoro dagozkion irudiak; irudi oiek ez digute adierazten Asistar Prantzisko Deunaren izakera ta mendu berezia.

Egia; Prantzisko Deunak bere buruari neke aundiak eman ziozkan, eriotzako orduan bere gorputzari barkapena eskatzeraño; eta baso ta aitzuloetan bakafeko otoitzaldi luzeak egin zituan; baño aren ikara ta menduan etzan agiri bakartararen eta neke-egilearen laztasun eta itzal-ilunik. Aitzitik, ezerez gofienean eta nai-gabe aundienetan ere, beti alai eta gozo agertzen zan; **Asisko Beartsua** ez deitzera, **Prantzisko alaia** deitu dezakegula.

* *

Asistar Prantzisko Deuna «izatez alaia ta atsegiña zan.» (*Tres Socii*) «Adiñeko zalarik, aitararen lanbidean asi zan; baño aita-semeak etzuten bata-bestearen antz aundirik; semea bada alaiagoa ta eskuzabalagoa zan, jolas eta kanta zalea... gazte jostaria.» (*Tres S.*)

Efiko gazte-bilera eta jolasetan Prantzisko zan lenengo: «guztiai afi-gafi zitzaien, eta jolasetan, gauz politetan, itz eta esan pafegafietan eta abestietan (*kantetan*) beste guztiak baño geiago izan nai izaten zuan.»

(1) Etxenagusiaren lauki bikaña Ondarabiko Prantziskar-Kaputxinoetan dago.

(*Thom. Cel.*). Eta beste efitar batzuekin Perusako espetxean zegoalarik ere, Prantziskoren begitartea etzan, aren lagunena bezela, ilundu, alaitu baizik; giltzapean egoteaz poztu egiten zala zirudien (*Tres Socii*).

* *

Prantzisko gazte-alaiak, Jainkoak eragiñik, biziera aldatu zuan: gizartea utzirik, bere Jaun eta Jabe bakar, Jainkoaren mofoi eta mutil izatera



Mendian atsedean artzen (*Intza'r L'ren arg.*)

osoro jafi zan; baño aren izakera ta mendu alaia etziran aldatu; bere alai izatea izatezko malatik, lufeko gauzaetatik, izatez goitiko malara, zeruko gauzaetara, jaso zuan. «Bizitza aldatze arek alako alaitasun eta poza ekafi zion, bere bafenean ezin eutsirik, nai izan ezta ere, beraganatzen ziranaiz zerbait esan bear izaten ziela.» (*Thom. Cel.*)

«Lenago Prantzisko Deunari legenardunak ikusteak ere nazka egiten omen zion; baño Jaunak aien artera eraman zuan eta len nazkagafi zitzaiona arimarentzat eta gorputzarentzat atsegingafi ta pozgafi biurtu omen zitzaion.» (*Testamentum*)

«Bein batez basoetan Prantzi'ko izkeraz Jainkoaren goraltzak kantari

zebilelarik, lapufak atera zitzaizkion eta nor zan galdeturik: «Efege aundia-
ren oiularia nauk ni, zuei zer zaitzute?»—erantzun zien Prantziskok. Eta la-
pufak makilaz eta astiñaldi bat eman ondoren, elufez betetako zulo batera
bota zuten, «Gelditu adi or, Jainkoaren oiulari zakar ori»—esanaz. Aiek
aldegin zutenean, Prantzisko, elufa astindu eta zulotik atera zan eta poza-
ren pozez gauza guztien Irazalea goratzen, ots aundian kantari asi zan.»
(*Thom. Cel.*) Bere bizitza guztian «ardura aundia izan zuan Prantzisko
Deunak beti alai ibiltzen.» (*Spec. perfec.*)

Afitzekoa zan aren alaitasuna, izan zituan, eritasun eta gaitz aundie-
tan; «ikusteaz bakarik beste edozein ikaratzeko zana, arek pafez eta pozez
eramaten zuan.» (*Thom. Cel.*)

Prantzisko Deunak lufeko ondasun guztiak erabat utzi zituan Jaunaga-
tik beartsu bizitzeko; eta alako alaitasun eta poza ematen zion ezerez go-
fian bizitzeak, noizbait bera baño beartsuagoren bat ikusten bazuan, nai-
gabeturik negar egiten zuan.

Prantzisko Deunak, bere azkeneko egunetan, askotan abestuerazi zien
bere lagunai, berak egindako, «*Eguzki abestia*» (*kanta*). Eta bein batez
Elias Anaiak, eriotzerako gertutzeko era oso egokia etzala ura esan ziola-
rik, Prantzisko Deunak erdi pafez erantzun zion: «Nere anai ori, utzi zada-
zu nere Jaunagan alaitzen, Espiritu Santuari esker, ainbat egiñik nago ba-
da Jainkoarekin, beragan ondo alaitu naitekela.» (*Spec. perf.*)

* *

Prantzisko Deunak bere jafaileak ere alai ibiltzea nai zuan. «Etsaiaren
ziztaldi asko garaitzeko biderik onena gogo alaitasuna dala esaten zuan
Prantzisko Deunak.» (*Thom. Cel.*)

Bein batean Prantzisko Deunak bere lagunetako bat betilun eta laño-
tsu ikusi zuan eta berofegatik asafeturik esan zion: «Ez dek egoki Jainkoaren
mofoia gizonen afean betilun eta kezkatu agertzea, beti era oneko baizik.
Ire obenak (*pekatuak*) ere gelan aztertu itzak eta ire Jaunaren afean egin
ezak negaf; baño ire anaietara aizenean iluntasuna utzi eta, besteak bezela,
alai ibili bear dek.» (*Thom. Cel.*) Eta Prantzisko Deunaren «praileak beren
artean ain alai eta pozik bizi ziran, elkarri begiratzeak bakarik pafe eragi-
ten ziela.» (*Eccleston*)

* *

Baño Asis'tar Prantzisko Deunaren alaitasuna etzan, lufeko gauzak eta
gizarteko jai eta jolas zatatsiak ekartzen duten, alaitasun itxura utsekoa;
aitzitik Prantzisko Deunak gaiztetsi egiten zuan, gogobete ezezik gizona-
ren bafena laztu ta kezkatu egiten duan gezufezko alaitasun ori. (*Spec. perf.*)

Prantzisko Deunaren alaitasuna etzan azaletikoa, bafendikoa zan; zeruko
gauzak emana eta bere sustraiak gogoaren (*animaren*) oben gabeen zituana.

Prantzisko Deunak alaitasun-itufia otoitzean arkitu zuan eta ofegatik,
«iluntasuna zetorkiola somatu orduko, otoitz egitera joaten zan.» (*Thom.
Cel.*) Jesu Kristo gure Jaunaren neke-onaizeaz gogoeta egiteak ematen zion
bere neke ta ezbear guztiak alai eta pozik eramateko indafa.


1926-IX.

Prantziskara.

*Ilabeten onen amabigaren egunean meza bat emango da Zeruko
Argia'ren irakurle, zabaltzale ta ongile guztien alde Antonio Santua-
ren aldrean.*



AGUR EREGIÑA ⁽¹⁾



1. Abeslariak

Elduayen A.

Astiro

2. Eñiak

2/4

A - gur E - fe - gi - ña A - ma e - fu - kio - fa gu re

1 2

bi - zi go - xo ta i - tza - ro - pe - na a - gur a - gur Zu -

re dei - ez gau - de E - ba ren u - me er - bes - te - tu - ok; Zu -

(1) Euskalefian zabaldurik dagoen *Agur Eregiña* (Salbea) balio gutxikoa omen da-ta, argitaratzen degu *Agur Eregiña* berri au gure lankide Elduayen Ak. egiña (IDAZLEAK)

ri ai - ez - ka ansiz ta ne - ga - fez ne - gar e - fi o - ne - tan Zu - tan

E - a ba - da i - tzuli i - tzazu gu - re bi - tar - te - ko on o - fek

i - tzu - li gu - ga - na zu - re be - gi e - fu - ki - tsu o - iek E -

ta erbeste o - nen on do - ren e - rakus zaigu - zu Je -

sus zu-re sa-be-le-ko Se-me bede-in - ka - tu - o - ri. E-

ri O bi-otz be - ra O e-fu-ki - or

O Ma-ri - a Bir - jin go-zo-a O-toitz e-gi - zu gure al-
Je-su-kris-to gu-re Jauna

de Jaun-goi - koaren A - ma Do - ne - o - fek A - men.
ren - a - gin - du-ak i - ra baz di - tza - gun.

BOSKAREN AGINDUA: GAITZABIDEA.

Vae homini illi, per quem scandalum venit (Matth. XVIII-7)
Al gaitzabidea ematen duan gizon artaz!

Boskafen aginduak, gizonaren biziari kalte egiten dion edozein gauza debekatzen digu.

Gizonak ordea bi bizi ditu; animakoa bata, eta gorputzekoa bestea. Oni dagokionaz zer debekatzen digun boskafen aginduan ikusi genduk lengoan; ikusi dezagun gaur animakoa zerk galtzen duan eta beragatik boskafen aginduan zer debekatzen zaigun.

Gaitzabidea debekatzen zaigu boskafen aginduan.

X-gafen Pio Aita Santuak bere Dotriñan dio: boskafen aginduan Jaungoikoak debekatzen al du lagun-urko projimoari animan gaitza egitea?—Bai jauna—dio—boskafen aginduan Jaungoikoak debekatzen du lagun projimoari animako bizitzan gaitzabideaz gaitza egitea.

Jesus'ek *iltzalea* deitu zuan deabrua, bere gezufakin gizonari gaitzabidea eman ziolako (Joan. VIII-44); eta izen ori bera merezi du, gaitzabide edo eskandaloaz norbaiti animeko bizia galdu-erazten dion edozeinek.

Gaitzabidea zer da? ta zenbat motetakoa da?

Gaitzabidea da, iñori pekatutako edo gaitzakerirako bidea ematen dion zerbait, ez ain ona, esatea edo egitea.

Afaiarentzat sare ta amua, pistientzat lakio edo lazoa ta egaztientzat sarea bezalaxe da animarentzat gaitzabidea; ori da bere galbide edo erorbidea. *Gaitzabidearen* izenak argi asko dio zer dan; animak gaitzatzeko bidea.

Gaitzabidea askotan zerbait on eztena egiteagatik edo esateagatik ematen bada ere, beste askotan eman diteke egin bear litzekena ez egiteagatik edo itzegin bear litzekena ez itzegiteagatik. Onelako gaitzabidea eman zuan Eli'k, bere semeai bear bezala gogor egiten etzielako.

• Gaitzabidea mota askotakoa izan diteke:

Gaitzabide emana da, norbaiti gaitzatzeko ematen zaion bidea.

Gaitzabide artua da, norbaitek besterengandik gaitzatzeko artzen duan bidea.

Gaitzabide emana izan liteke bi motetakoa: *gaitzatzeko emana*, iñor gaitzatzeko asmotan ematen danekoa; ta *gaitzatzeko ez emana*, iñor gaitzatzeko asmorik gabe, on eztena egiten danekoa.

Gaitzabide artua ere beste bi motetakoa izaten da: *argalena*, beren argaltasunaz edo ez jakinez artzen ba-dute gaitzatzeko bidea; eta *farisioena*, farisioen antzean beren gaitzakeriz artzen ba-dute gaitzto go egiteko bidea.

Pekatu al da beti?

Gaitzabidea iñori ematea, beti berez pekatu aundia da; eta ori, naiz ez izan *gaitzatzeko emana*. Nor berak gauza gaitztoa esateaz edo egiteaz egiten duan pekatuari, gaitzakeri befa eransten (atxikitzen) dio, ba, beste-ri gaitzabidea emango balitzaio, ta ori aitortu bear da konfesioan.

Pekatu audiagoa da oraindik askoz ere, gaitzabidea iñor gaitzatzeko asmotan emana ba-litz.

Baño gogoan artu, *argalen gaitzabideaz* bildur izan bear dala; farisioen antzekoanaz, ezta axoliki (ajoliki) izan bear.

Gaiztabidea zergatik da pekatu aundia?

Gaiztabidea pekatu aundia da, Jaungoikoaren egintzarik aundiena, au da, animen Erosketa ezereztutzen dualako; lagunaren animari eriotza ematen diolako, graziazko bizia, gorputzekoa baño obegoa kentzen bai-dio; eta pekatu askoren itufi dalako. (X-gafen Pio'k).

Jaungoikoaren Semearen ogeita amairu urteko nekeak, izardiak, otoi-tzak, baruak, gose ta egafi, neke ta miñ eta odolezko eriotza bera gaiztabide batek ondatzera botatzen ditu. Jaungoikoari garbitzea ainbat gusta zitzaion anima, ain efaz zikintzen bai-tu gaiztabideak!

Jaungoikoaren aur maite ta biziak dira anima onak, baño gaiztabideak ematen die anima oiei eriotza. Anima oien etsaiari laguntzen dio, ba, gaiztalariak anima oiek ondutzen. Ta iñori gorputzeko bizia kentzea, ofen gaiztakeri ikaragafia ba-da, zenbatez lafiagoa izango da animakoa kentzea?

Argatik zion Jesus'ek: Kontu, gauza ezeretzat etzazuten iduki nere txiki auetako bat... Nigan siñestutzen duten auetako bati gaiztabidea ematen dionak, obe luke efotafia lepotik zintzilika lotuko ba-litzaio ta itsasoaren erdian botako ba-lukete. (Matth. XVIII-10, 11).

Gañera gaiztabidea, pekatu askoren itufi zikiña izaten da. Gazte-gaztetan artutako gaiztabide batengatik erori ta erori joaten dira zartzaroraño ta iltzeraño asko.

Ezta ori bakafik; gaiztabidea artu duanak, gaiztabide ori askotan bati baño geiagori erakusten die ta atzoko baten kutsuak. biarko amar galdu ditu.

Gaiztabidea baño gaitz kutsakofagorik ezta, eta bildurgafiagorik ere ez.

Nor dira gaiztabidea (eskandaloa) ematen dutenak?

Uste baño geiagok ematen dute gaiztabidea.

Ezer sinestutzen ez dunarena egiten duanak; Elizak agindutakoaz pafa (fafa, ifi) egiten dutenak; kristau onak biziera elizkoietik atzerazten ibiltzen diranak, gaiztabide (eskandalo) aundia jartzen dute.

Liburu ta paper tzafak zabaltzen dituztenak eta etxean sartzen uzten dituztenak gaiztabide aundia jartzen dute ta ofelako irakurgai (letura) txafakin siñismenaren ofafiak astintzen dituzte.

Bertso ta kantu zakafak ateratzen dituztenak; ofelakoak lagunaren artean kantatzen dituztenak eta erakusten dituztenak gaiztabide izugafia jartzen dute.


Argazki edo efetrato itxura gaiztokoak, tarjeta itsusiak eta edozein al-dizkari (efebista) gauza gaiztoak dakazkina besteri ikusteko ematen dionak gaiztabide aundia jartzen du.

Jolas edo jostabide txafetan dabilzananak, oietara eragiten dutenak, oietarako soñua jotzen dutenak, soñua ordaintzen dutenak eta beren etxeak ortarako ematen dituztenak gaiztabide (eskandalozko) pekatu aundia jartzen dute.

Azkenean, beren jantzieraz edo soñekotaz besteri gaiztabidea ematen diotenak eta itxura onaren legeak austen dituztenak ere gaiztabide gogofa jartzen dute.

Intza'r Damaso An.

Gure ordezkariet biali diegu euskal-liburu bana, gure eskefona ta onginaia erakusteko.



Txina'rako bidean

I

Intza'r Damaso A'ri

IRUÑAN



NE Aba maitea, agur; Dakizun bezela ilabete onen 26'ean atera giñan Ondafabi'tik. ta Bayona'n amarterdietarako edo giñan. Efi ontan bertako Buruñurdunak ikustera joan giñan eta Altzo-Azpi'tar Diego A'k erakutsi zigun konbentu guzia. Baratzan daukaten ilefia ere ikusi genduan; bertan daude España'ko legeak diefitik kanpora jaurtita or il ziranen il-obiak; iya denak (gutxi dira) euskaldunak; oyen artean Bera'tar Fidel ospatsua; gipuzkoak batzuk ere baziran, bañan oyen izen ta efiaz ez naiz oroitzen. Galdetu Diego A'ri, eta izpar geyago eman-

go dizkizute noski. Ordubiak aldera edo atera giñan Genova'runtz, bultzi laxtefean; Lourdes'tik igarotzean, bultzitik ikusi genduan Ama Birjiñaren eliza eta prozesio edefa, guk ere biotza Jesus Oteundua rengana eta Maria Amagana jaso genduan; pozik geldituko giñan, bañan astirik ez. Trenean jo ta jo, aufera ta aufera. Bidean argi zan bitartean toki edefak ikusten genituan, bañan ilundu zanean, afaritxoren bat artu eta al genuen bezela lo..... Argitu zanerako Marsella aldean edo giñan. Tolon'en gudaritalde aundi bat ikusi genduan, beltzak, senegaltafak edo izango ziran. Itxas-ertz urdiña edo *costa azul* esaten diotena eder iritzi zitzaigun. Efiak ere ugari ta edefak... azkenik goizeko amaikak aldera Ventimiglia'ra edo... *aduanarena* egin, laixterka bazkaldu eta befiz ere bultzira... bostetarako Genova'ra. Bide ontan guzian trena itxas ertzetik, beste aldetik mendia, ofegatik tunel asko igaro bear ditu baña txikiak denak. Larunbat goizean Genova'ko ilefi ospatsua ikusten bi ordu edo egin genituan, afatsaldean Genova'ko Buruñurdunen Conzezioko elizan egon giñan, bertan Ven. Fr. Francesco da Camporosso'ren il-obiaren afean otoitz egin genduan, gure bidean da lagun dezaigun ... eta gure lagun, adixkide, aide, ongile ta abafegatik (Anai oneri emengo oste guziak «il Padre Santo» deitzen diote). Astelenean Pisa ta Florencian egon giñan, (laixterka nabil, ez det astirik eta). Pisan Dorre makurtua, «il

duomo» edo katedrala, baptisterioa ta ikusi genituan. Florenzia'n, elizarik geyenak eta «Galleria degli Uffizi» edo museoak, toki oyek guzietan zenbat edertasun! bañan ori dena edozein liburutun nik esango nuken baño obetogo ikusiko dezute. Gure gogoa Asis eta Efoma ikustea zan, baña nai ta nai ez ilaren lenengo egunean Genovan egon bear genduan eta ezin.

Lefo motel otan zer edo zer «Zeruko»'rako onik ikusten badezu, artu dezakezu.

Biar eguardi aldera edo sartuko gera (J. I.) «Saarbrücken» ontzian eta afatsaldeko lauretan edo lufari agur egingo diogu. Orain arte ondo ta pozik gaude. Otoiztxo bat ondo ibili gaitezen eta Txina'n on aundia egin deza-gun. Zure anai

Lizartza'r Andres A.

O. M. Cap.

Genova, 3 - Agofa - 1926.

II

Genova'tik irteera

Agofaren laugarren egunean, gabeko zortzi ta erdietan irten giñan Genova'ko kayetik.

Aufena bandak iru edo lau eresi jo zituan. Irugarren jo zuana, Alemania'ko ereserkia (imnoa) izan zan, ontziko bidaztiak bandakin batera abestu zuten. Oso atsegingafi izan zitzaigun.

Bazkaldu ta apaldu egun ontan ontzian egin genduan.

Gure lagunak.

Egun ontan bertan, bazkalondoan kayan genebiltzalarik, filipinastar apaizkatoliko bat adiskidetu zitzaigun. Bere izena, Vicente R. Katapang.

Arpegiz berealaxe igartzen zayo indiafa dala. Bañan buruz, nik ikusi ditudan gizonetako argiena ta azkařena dezute.

Gaztetan, Gernika'tar Blas Aitaren katēkista izana.

Iruña'tar Vicente ta Torres'tar Rikardo Aitak ere ezagutzen ditu.

Lau urtean, Ipar Amerikan ikasten eta irakasten ibilita, orain bere jayotefira dijoa, ango irakaskintza (enseñanza) alik ondoen ipintzera. Ortara-ko bialdu omen zuan bere gotzayak Ipar Amerikara.

Alemania'ko beste zazpi apaiz ere ba-ditugu lagun, «Societatis Verbi Divini» deritzayenak.

Auek ere Shang-hai'ra dijoaz, ta gero beren mixiora. Shang-hai'tik Kan-su'rako bidean daukate misioa. Apaiz auetako bakoitzak, nun-nai meza emateko bear dan guzti-guztia ba-dakar. Guk meza ematekotatik ezer ez dakargula esan genienean asko afitu ziran. Ontzian ez dago ezer meza ematekotatik.

Port-Said.

Gaur, atsaldeko seyetan elduko gera iri ontara. An sei ordu eginda, befiro aufera, Kolonboraño.

Oraindañokoan ederki goaz. Gero ere onen ederki ibiltzea, Jainkoak naiko al du.

Izaskun'ak. (O. M. Cap.)

Port-Said, 9-Agofa-1926.


Ilabete ontan berean agertuko da Zeruko Argia'ren zenbaki berezi bat, gure Aita Asis'tar Prautzisko deunaren zazpireungarren urtea goratzeko.

BERIAK

Prantzitafak Lourdes'en

Prantzitafak egin dute Lourdes'era beren 54'g. peregrinazioa. Prantziko alde guzietatik tren berezietan 50.000 eldu dira Lourdes'era, berakin 3000 eri edo gaxo eramanaz.

Beste urteetan bezela, Ama Birjiñak saritu du gaxoak beregan jafi duten uste edefa, aurtan ere izan dira ba, diotenez, Lourdes'en gaitza utzita, etxera



Lizartza'r Andres A. eta Aldaba'r Gregorio A. (Izaskun) dijoazten ur-ontzia.

sendatuta itzuli diranak. Txit ikusgafia omen zan benetan gaubeko prozesio ondorean 50.000 aotatik ateratzen zan *Credoa* entzutea.

Gaxoen sendatzeak egiazkoak ote diran ikusteko dauden sendagiñen aurretik 15.000 gaxo igarotzen omen dira urtero; joan dan urtean ontan aritu diran sendagiñeak 650 izan dira.

Prantzisko Deunaren urtea asteko

Urte ontan Belgika'k egingo ditun jayai asiera emateko, Lovaina'n Aita Santuaren Ordezkoak bedekinkatu du Prantzisko Deunaren irudi (estatua) bat. Irugafen Ordenakoak jaso dute irudi ori Kaputxinoen etxe afean. Mercier Kardenal txit agurgariaren deiari erantzun da, jafi ziran emen Kaputxinoak. Irudian

Prantzisko belauniko agiri da, Jaunari otoitz egiñaz ta bere ondoan arkume bat. Irudi au Polonia'ko kaputxino batek egiña da.

Meza entzutearren


Calles, Mejiko'ko buru edo presidentek emandako lege gaiztoak betetzen asi ziranetik, ez da mezarik ematen, ez da elizkizunik ere egiten katolikoek elizetan. Mejiko bafuan bizi diran katolikoak egin ez dezaketena, egiten asi dira Mejiko'ko muga bizi diranak. Igandero Mejiko'tik atera ta joaten dira mugaz beste aldeko efi egokienera, meza entzutera.

Iritxi ezin dana

Orain egun batzuek, Inglatefa'ko efege-eregiñak itxas-jai batera joan ziran; etzuten ordea jai ontatik atsegin aundirik atera, asafetu bai asko, emakumeak zebilzkiten soñeko lotsagabeak ikusita. Lenago efeğiñak, ontaz itz egiñaz, adierazi zuen etzuela ontzat ematen gaurko soñekoen oitura ta ofegatik uste zan etzirala emakumeak ofelako jazkerakin efeğiñaren afean agertuko, baño befi au dakafen izparfiingiak dionez, naiz Aita Santuak, naiz efegeak itz egin, alpe-ik da. jritxi ezin dana.

Mixiolarik onena

Zein ote da urte oyetan izan dan misiolarik onena? Calles, Mejiko'ko buru edo presidentea. Ala esan du Amerika'ko protestante batek. Elizari zenbat eta traba geyago jafi, zenbat eta gogofago egin, gero ta edefagoa ateratzen da bufukatik, gero ta biziagoa kotolikoen siñismena: au gertatu da ta gertatuko da beti.



Ekila (kanpai) edeña Asis'en.

Italia'ko Udal (ayuntamentu) guziak ezkiñā eder aundi bat, «*La compa-
na delle Laudi*,» eskeñi diote Frantzisko Santuaren sortefiari. Fermo'n Pas-
qualini etxean urtu ta egin dute ezkiñā ori. Il onen seian, atsaldeko zortziak
faldean iritxi zan Asis'a, lorez eta Italia, Asis ta Fermo'ko banderaz ederki
apaindurik zegon kamion batean.

Fermo'tik abiātu ta, S. Giorgio, Porto S. Elpidio, Porto Civitanova, Tolentino, Caldarola ta mendialdeko beste zenbait efietan barna igaro ondoan sartu da ezkiñā Foligno, Spello, Aingeruetako Andre Maria elizan ta azkena Asis'en.

Egundañoko poza erakutsi diote efietako jende guziak, musika-banda ta guzi ateratzen zitzaizkion bidera.

Camerino'n ere jai edeña prestaturik zeukaten.

Ezkiñak beñogei *kintaleko* azta (pisua) du; ezkiñak-mingañak bakafik baditu *eun ta iru* kilo Goratasunean *bi metro ta ogei zentimetro* ditu, zabalean befiz (diametroan) *metro bat eta larogei zentimetro*. Kanpo-aldea irudiz apaindu diote: Santuaren irudia, Efoma ta Asis'en mazmafoa (escudo), liktoren zigor-sorta eta Frantzisko ta Klara Santuen ezagungafiak ageri dira, eta inguru-inguruan Frantzisko Santuak egindako «*Eguzki anaiaren erezia* (kantua)», luzean *ogei ta amabost metro* artzen dituela.